

PRENTSA OHARRA: 2025.08.14

Edinburgoko Fringe jaialdiak DAB eta Cielo rasO euskal konpainiak hartuko ditu abuztuaren 19tik 24ra

- **DABek eta Cielo rasOk seina ikuskizun eskainiko dituzte arte eszenikoen nazioarteko erakusleihu den Fringe jaialdian**
- **Etxepare Euskal Institutuak Dance Base-rekin duen elkarlanari esker, urtero euskal dantza konpainien presentzia bermatzen da bertan**
- **Basque Showcase programazioaren baitan kokatzen diren emanaldiez gain, Cielo rasO konpainiako Igor Calongek dantza garaikideko ikastaroak eskainiko ditu**

DAB eta Cielo rasO euskal konpainiek seina emanaldi eskainiko dituzte abuztuaren 19tik 24ra Edinburgoko Fringe arte eszenikoen jaialdian. Mundu mailako kultur ekitaldi handienetariko eta garrantzitsuenetako bat da Fringe, eta urtero Edinburgon, Eskozian, ospatzen da, abuztuan zehar. Etxepare Euskal Institutuak Dance Base-rekin, alegia, Eskoziako dantzarako zentro nazionalarekin, duen elkarlanari esker, urtero euskal dantza konpainien presentzia bermatzen da bertan. Hain zuzen ere, lankidetzak 2019. urtean hasitako Scotland Goes Basque euskal leihoari ematen dio jarraipena. Sortzaileentzat arte eszenikoen nazioarteko erakusleihu garrantzitsua da Fringe jaialdia, bai ikusgarritasunagatik eta baita nazioarteko kulturgileekin bat egiteko eskaintzen dituen aukerengatik ere.

Etxepare Euskal Institutuak, ADDE Euskal Herriko dantza profesionalen elkartearekin elkarlanean, Fringe jaialdian parte hartzeko deialdia zabaldu zuen 2024ko abenduan, eta, aurten, Dance Base-ko programatzaileek Euskal Herriko bi konpainia profesional hautatu dituzte: **DAB eta Cielo rasO. Abuztuaren 19tik 24ra** ariko diren konpainia

horiek beren **'NŌEUD'** eta **'Née'** lanak aurkeztuko dituzte, hurrenez hurren. Horrez gain, **Cielo rasO konpainiako Igor Calongek dantza garaikideko ikastaroak emango ditu** Fringe jaialdiaren baitan, dantzako profesionalei zuzenduak, Dance Base-ren gunean, konpainiaren emanaldi-egunetan 10:00etatik 11:30era.

Edinburgoko Fringe jaialdian euskal konpainiek izango duten presentzia Basque Showcase izeneko programazio bereziaren baitan kokatzen da, Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan. Basque Showcase honen helburua euskal sorkuntza garaikidea Eskoziako eta nazioarteko programatzaile, kritikari eta sektoreko profesionalen aurrean ezagutaraztea da, eta horretarako, Etxepare Euskal Institutuak ADDErekin (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte) elkarlanean sustatutako deialdi baten bitartez hautatu dira bertan parte hartuko duten konpainia profesionalak. Hala, euskal sortzaileei nazioarteko ikusgarritasuna eskaintzeko ez ezik, harreman profesionalak sendotzeko eta sorkuntza garaikidearen nazioartekotzea bultzatzeko xedea ere badu.

'NŌEUD', Chillida eta Balenciagaren lorratzetatik

Marina Eskisabel eta Iker Sanz sortzaileek osatzen dute DAB konpainia 2022az geroztik. Dantzaz konpainian aritutako dantzariak dira, eta enbor bereko ezpaleen antzera elkarlanerako grina sortu zen, gerora DAB dantza konpainian hezurmamitu dena. Proiektua martxan jarri zutenetik, erronka garaikideak aztertu eta komunikatzeko tresna gisa darabilte dantza. **'NŌEUD'** dute beren azken lana eta mugimenduan eta askatasunean oinarritutako bidaia-proposamena da: garaikidetasuna eraikitzeko iraganarekin lotzen duen obra da **'NŌEUD'**.

Lan horretan, Eduardo Chillidak eta Cristobal Balenciagak, XX. mendeko euskal artearen bi figura enblematikoak, amankomunean zituzten lan-metodologietan sakontzen da, bai eta Chillidak eta Balenciagak bizi izan zuten testuinguru historiko eta kulturean ere. **'NŌEUD'** ikuskizunean, hiru dantzarik hersturatik askatasunerako bidaia irudikatzen dute. Beren mugimendu arin eta adierazkorrek Chillidaren eta Balenciagaren irudi lerromakurrak ekartzen dituzte gogora, eta, aldi berean, askapen indibidual eta kolektiboaren aldeko borroka irudikatzen dute. Obrak askatasunaren

garrantziaz hausnartzera gonbidatzen du ikuslea, bere forma guztietan, adierazpen askatasunetik mugimendu askatasuneraino.

‘NŒUD’: abuztuak 19 – 24, 14:30 – 15:20, Dance Base-n

‘Née’, odisea bat lehen pertsonan

Cielo rasO Igor Calonge koreografo eta dantzariak 2010. urtean Euskal Herrian sortutako dantza konpainia da. Cielo rasO-ren lana kultur- eta arte-espresibidetan kartsua den euskal nortasunean eta haren garaikidetasunerako eraldaketan datza, non eta tradizioa, gorputzaren indarra, erresistentzia, borroka primitiboa, sinbologia eta poetikotasuna baliatzen dituen, betiere lengoai fisiko berriak eta arrisku estetikoak bilatuz. ‘Née’ bere azken lanetako bat da, eta gorputzaren bidez kontatutako bidaia intimo eta hunkigarri bat da. ‘Née’-k gizakiari sustraiak ematen dizkio, bakardadea besarkatzen du, galerari geruzak jartzen dizkio, desilusioan laguntzen du, etsipena askatzen, hutsuneari indarra ematen dio, maitasunaren alde borrokatzen du, hurbila birtualizatzen, magia eusten, deabruak uxatzen ditu, bizigabea gizatiartu, ilunpetik itzultzen da, irudimena astintzen du, beldurrak sakabanatu eta ordenatu egiten ditu, airea zeharkatu eta saiatu egiten da. Elegantziaz, isiltasunetik urrun dagoen bidaia bat eraikitzen du. Lehen pertsonan kontatua da: hausnartzailea bezain eraldatzailea da.

‘Née’: abuztuak 19 – 24, 19:50 – 20:50, Dance Base-n

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

Info+

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus